

Euskal Herria
askatu! ★

20 urte
ESPETXEETAN
BAHITURIK



Fernando ARBURUA



Koldo DE MARKOS

Duintasunez borrokan

HAMALAU MILA ETA SEIEHUN

Hogei urte igaro dira 1981ko urtarrilaren amaierako egun hotz eta lainotsu haietan eman zen sarekadaren ondorioz giltzaperatu zintuztenetik. Hogei urte burdinezko itxuraren lege pean. Gure Herri zahar honek pairatzen duen zapalkuntza luzearen historian biok, jada, giltzapean daramatzazuen hamalau mila eta seiheun gau eta egunak ukazioaren ilunari argia egingo dion askatasunaren aldeko borroka eredugarriaren lekukoak dira.

Hogei urte hauetako kronika politikoa egiteari ekinez gero balegoke bai zer idatzi, bai espetxetan bizitutakoaz bai kalekoaz. Sakabanaketaren estrategiak porrot egin duen neurri berean egin dute porrot politikoki domestikatu nahi gaituzten esparru juridiko eta politiko espainiarrak zein frantziarrak. Estatu biak estrategia bakarraz jokatzeko Euskal Herriak burujabetzarik izan ez dezan eskura dituzten bitarteko guztiak erabiliz baina ez die balio, ezin dute burujabetzaren aldeko sua amatatu.

Euskal Herria aro politiko berri batean sartuta dago. Bi Estatuak gure Herrian indarrean dituzten esparru politikoek ez dute etorkizunik eta horretaz ondo baino hobeto jabetuta daudenez, inolako konplexurik gabe indarraren arrazoa baino ez dute erabiliko. Beren legearen indarra noski, demokratikoa omen dena.

Orain hogei urte inguru autonomismoaren aldeko erronka egin zutenek Ezker Abertzalea suntsitzeko estrategia babesten ikusi ditugu urte luzetan. Nazio eraikuntzaren aldeko hitzarmena gauzatzeko adorerik izan ez dutenek, GALEko arduradunekin biltzen diren bitartean, Ezker Abertzalea egin nahi dute egungo egoera politikoaren errudun. Ezker Abertzaleak burujabetzaren aldeko bide politikoa egiteko luzatu zien eskua, Euskal Herria eraikitzeke lanean jardun nahi duen guztiak beti irekita aurkituko duen eskua hain zuzen.

Euskal Herriak herri gisa iraun ahal izateko burujabetza behar du, Estatu gisa antolatuta dauden nazioen parekoa. Europan eta munduan Estatu izatea da Euskal Herriaren premia eta zuzeneko bidea egitea besterik ez dago, Herri gisa biziz, Herri gisa jokatzuz. Burujabetza, egunoroko herrigintzaren bidez, irabazi egin behar dugu. Mundu mailan zapalkuntzaren bertsio modernoa globalizazioa kontzeptuan sintetizatzen den garai honetan, herritartasuna jorratuz, nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialaren estrategia egunez egun gorpuztuz bakarrik izango gara nor. Gure esku dago.

Hamalau mila eta seiheun zuenak, Koldo eta Fernando, beste milaka askori batzen zaizkion etengabeko borrokaren isla. Euskal Herria aske egingo duen eragilea borroka da, zuena eta gu guztiona.

*Hurbiltasuna amestarazi
urrun eraman jarraian;
etsipenean amildu eta
esperantza kendu nahian
kate motzean lotzen gaituzte
etxeratzeke garaian.*

Koldo de Markos

*Bai barnean dihardugunok,
bai kanpoan zaudetenok,
lokarri honi eutsi diogu
hamarkada luze hauetan,
eta zilarrezko lokarri horrek
berak elkar lotu gaitu
denbora honetan,
urtez urte
eta trabaz traba.*

Fernando Arburua

Etxera!



20 urteei begiradaxoa

Egun bat, aste bat, urte bat, bost urte, hamar urte, hogeitun urte... Nola joaten zaigun denbora...! Hogeitun urte. Hogeitun urte ziega batean sartuak, hogeitun urteko bizipenak, hogeitun urteko une goxoak eta une latzak, hogeitun urteko zigorra, bahiketa, inposaketa... eta borroka. Ez baitira nolana hikoak izan azken hogeitun urte hauek. Ez kanpoan gaudenentzat, ezta are gutxiago ere barruan daudenentzat. Zenbat gauza! Zenbat pasadizo hogeitun urte hauetan!

Pentsa dezagun zenbat gauza gertatu diren hogeitun urte hauetan. Non ginen eta non gauden. Bide latz honetan zenbat lagun geratu diren.. Orain dela hogeitun urte.. Zenbat urte zenituen? Nolako heziketa izan duzu? Nola bizi dituzu urte guzti hauek? Zer oroitzen duzu bereziki, zer markatu zaitu? Eta beraiek? Nola bizi dute guzti hau?

Ondorengo orrietan, hogeitun urteko gertaerak daude. Gutako batzuk gehienak ezagutu ditugu. Beste batzuk, gazteenak, ez hainbeste. Fernando eta Koldok, ia denak ezagutu dituzte. Pentsa dezagun zenbat gauza gertatu diren, zenbat diren hogeitun urte, eta bakoitzak nola bizitu dituen.



1981 Kartzelaraketa

Gure lagunen atxiloketa eta kartzelaraketa ematen den urtea, Gernikako Juntetxetik HB eta LKiko ordezkarien kanporaketa ezagutu zuen, EAJren "berroci"ren polizien eskutik. Lemoizeko borroka bere unerik gorenena ezagutzen du Ryan ingeniariaren bahiketa eta heriotzarekin.

Urte honetan ere, Joxe Arregi ETAkidea atxilotua eta bortizki torturatua izan ondoren, kartzelan hilko da. Preso politiko anitz Puertoko kartzelara trasladatuak izaten dira. Irlandan, preso politiko errepublikarrak gose greba luze eta latz bati hasiera ematen diote, eta besteen artean, Bobby Sands hilko da.

Estatu Espainoleko karteletan ere, Juan José Crespo GRAPOkidea, gosez hilko da protestaldi batean. Urte honetako beste bi uneak izango dira Estatu Espainarrean ematen den auto-kolpea, eta gertuago, Telesforo de Monzónen heriotza Donibane Lohizunen, eta bere gorputzaren bahitze saiakera txakur espainolen aldetik.

1982 Tortura

Altzan lagun ugari izaten dira atxilotuak, eta Zabaletaren omenaldian balaz zaurituak izaten dira. HABEko ikasleek uko egin zioten espainiar txakurrekin klaseak emateari. Puerton, Sorian, Yeserias eta Carabanchelen hasitako gose greba, bertan behera geratzen da. Esteban Muruetagoiena medikua, komisaldegitik pasa eta torturatua izan ondoren, hiltzen da. HBko Parlamentariaren gartzelaraketa, Mitin baten ondoren; Euskadiko Ezkerrakoek ordainduko dute fiantsa HBren "biktimismoa" ekiditzeko.



1983 Joxi-Joxean

FOP indar errepresiboak Carabanchelen sartu eta kargatu egiten dute Presoen aurka. Oreretako Maddalen jaiak ere lehertaraziko dute. Euskadik sekulako uholdeak izan zituen urte honetan. Joxi eta Joxean errefuxiatu tolosarrak desagertzen dira Baiona Txikian. Errekonbertsio industrialaren aurkako mobilizazio etengabeak ematen dira.

1984 Extradizioak

Euskaldunan ematen diren langileen borrokaldietan, langile bat hilik suertatzen da. Herrera de la Mancha kartzelara lehen martxa egiten da. GALen agerpena. Estatu Frantziarrak emango ditu lehenengo extradi-zio eta deportazioak; Euskal Herriak, greba orokor-rarekin erantzungo du. Santi Brouarden erahilketa eta Greba Orokorra. EAJk Carlos Garaikoetxea bere postutik kentzea erabakitzen du; barne liskarra areatzen doa.

1985 Mikel Zabalza

EAJ eta PSOEren arteko Paktoa lortzen da. "Euskadi alaitu eta borrokan kementsu" kanpaina arakastatsua burutuko du HBk. GALek kolpatzen jarraitzen du, eta besteen artean, Xabier Galdeano eta Monbarreko ekintza egingo ditu. Errekonbertsio industrialaren aurkako greba orokorra Estatuan eta Hego Euskal Herrian. Pikabea eta Sarrionaindia Martuteneko kartzelatik ihes egiten dute soinu bafle batean izkutaturik. Seaska Mitteranden etxe aurrean manifestatzen da bere onarpena eskatuz. Altzako bizilaguna den Mikel Zabalza Guardia Zibilak atxilotzen du, eta desagertua egon ondoren, hilik aurkitzen dute Bidasoan, esposak jarrita. Greba Orokorra.

1986 OTANi ezetz!

Hego Euskal Herriak OTANi ezetza ematen dio kanpaina zabal eta koloretsu egin ondoren; EAJK baietza eskatu zuen. Herri Urratsera doazen autobusen aurkako txakur espainiarren karga mugan. Joseba Asensio euskal presoa Herrera de la Manchako kartzelan hilik aurkitzen dute; txakurrek bere senideak jipoitiko ditu hiletetan. Madrilen izandako ekintza armatu batean, bederatzi guardia zibil hilik suertatzen dira. Guardia Zibilak, Baztandarren Biltzarra lehertarazi egiten dute. Hamaika gora behera ondoren, EAJren eszisia gauzatzen da.



J.C. Yoldi

1987

Juan Carlos Yoldi Gasteizko Legebiltzarraren aurrean, presoen egoera salatzen du, Ezker Abertzalearen jarrera politikoa azalduz. HBK, Euro-parlamentari bat lortzen du. Txomin Iturbe ETAko buruzagia, Argelian hiltzen da, eta milaka lagun agurtzen dute Arrasaten. Hipercorren ekintza ematen da ere. Ardanza: "Independentismoak ez du funtsik Europan". Txalaka Elkarteak irekitzen da.

1988 Ajuria Enea Paktua

Ajuria Eneako Paktua sortzen da EAJren ekimenez. Bokalen, IKko buruzagia den Philippe Bidart atxilotzen dute. Mikel Lopezegi euskal preso urkatua aurkitzen dute Herrerako kartzelan, eta Juan Carlos Alberdi hilik aurkitzen dute ere. Polizia Mikel Kastresana ETAkidea hiltzen du Donostian, eta Oreretan Mikel Arrastia hilik suertatzen da bere burua etxetik bota eta gero, Polizien eskuetan ez erortzeko. Casinello, "Zona Vasca" delakoaren Capitan General izendatzen dute. Lege antiterrorista, legedi arruntan sartzen dute. Bateginik. Emiliano Revillak, tarta bat eskuetan aske uzten du ETAk bere etxe aurrean.

Egunkaria

1990

José Manuel Sevillano GRAPOkidea gosez hiltzen da borrokaldi luze eta latz baten ondoren. Nafarroako Foz de Lunbierren, Guardia Zibilak bi ETAkide erahiltzen ditu, eta beste bat oso larriki zauritzen dute. Nazioartean Golkoko gerra dago, eta hemen Euskaldunon Egunkariaren sorrera ezagutzen dugu. Poliziak Mikel Castillo ETAkide iruñearra erahiltzen du. HBK Autonomi Estatutu Nazionala aurkezten du, elaborazio partehartzaile luze baten ondoren. Beltzek Unibertsitatea bortizki okupatzen dute.

1989 Argel

Argeleko Mahaia osatua geratzen da, ETAREN eskeintzari Espainiar Gobernuak kasu egin ondoren. "Bidez Bidez" Autodeterminazioaren aldeko martxa. Alcalako Espetxe aurrean, senideen autobus bati eraso egiten dute funtzionarioek eta beraien senideek. Autobiaren aurkako manifestaldiak. Justizi Ministerioak dispersioa martxan jartzen du. Josu Muguruza erahiltzen dute Madrilen. Oreretan, José Antonio Cardosa postalari gaztea hilik suertatzen da HBko kide bati bidalitako bonbapaketea lehertu ondoren; hiletetan istilu oso larriak. Juanra Aranburu euskal deportatua, Togon hiltzen da. Insumisioaren borroka gora egiten du nabarmen.

1991 Morlans

Euskadiko Ezkerraren eszisia. Hainbat irakasle, EHUtik kanporatzen dituzte. Bi ETAkide erahiltzen ditu Poliziak Lliça d'Amunten. EAJK PSOERI oparitzen dio Donostiako Alkatetza EAKo gehiengoari muzin eginez. Guardia Zibilak hiru ETAkide erahiltzen ditu Morlansen. Altzako Piliñ eta Alfonsoren atxilotetak. Zipaioak Tturko akatzen dute Bilbon. Independentziaren aldeko manifestazio erraldoia Bilbon. Maastrichten Tratatuaren sinaketa.

1992 Bidarte

"Corcuera" Legearen onarpena Madrilen. "Bai Independentziari" k antolatzen du Bruselasera martxa arrakastatsua. Bidarten, hiru ETAkide atxilotzen ditu Poliziak ETAREN zuzendaritza osatzen dutelakoan. Ezker Mugimendu Abertzalea eta Euskal Batasunak bat egiten dute Hauteskundeetara joateko. Autobiaren auziaren konponketa akordioaren bidez. ETAk su etenaren eskeintza berresten du.

Independentzia

1993 Anuk

Euskadiko Ezkerraren esziesiotik sortutako adar bat, PSOEn sartzea erabakitzen du. La Santéko kartzelan, Pello Mariñelarena hilik aurkitzen dute IHESaz. Madril-en, Estatu Gorenaren sei militar hilik suertatzen dira ekintza armatu baten ondorioz. Gurutze Yanci erahila torturapean, eta Xabier Kalparsoro ETAKidea, "Anuk", komisaldegian. Ertzaintza EGINen sartzen da erregistroa burutuz.

1994 Uruguay

Ertzaintzaren zabalpena Donostian. Gazte Topagunea Etxarrin. Ipar Euskal Herriko Gara-pen Kontseilua sortzen da. "Bolanta" inguruko liskarrak. Euskaldunen estradizioa dela eta, mobilizazio erraldoiak, protestak eta errepresio ba-satia Uruguayan, hainbat erahilen emaitzarekin. IRAREN su etena. Anjel Irazabalbeitia erahila.

1995 Alt. Demokratikoa

ETAren ekintza Ordoñezen aurka Donostian. Lasa eta Zaba-laren arrastoak agertzen dira. Aznarren aurkako ekintza. UPNren esziesioa. "Euskal Herria Askatu!". Rosa Zarra erahi-la Donostian Zipaioen pelotazo baten ondotik. Euskal konfina-tuen bueltatzea. ELA-LAB Aberri Eguna. Errege Espainiarra-ren aurkako ekintza saiakera. Alternatiba Demokratikoa kale-ratzen du ETAK. Itsasondoko Mikel Otegi gazteak, bi zipaio akatzen ditu.

1996 Alardea

Abertzaleen aurkako Itunen krisialdia. Or-tega Lararen bahiketa. Alternatibaren bi-deoa. PPren garaipena Estatuan. Presoen aldeko dinamika indartsua. Solidarioek Itoitzen kableak mozten dituzte. Krisia Na-farroan CDN,UPN, PSN,... Alardeen istilu larriak. Alkate gehienak Euskal Departa-mendu baten alde.

1997 Blanco

Urte gogor honetan, "Txo", Aranzamendi, Salanueva, "Peli", Santi Diez, Salegi, "Basajaun",... Bidean geratu zitzaizkigun. Mahai Nazionala kartzelara joan zen, eta Mikel Otegi absolbitu zuen zinpekoen epaimahai bat. ELA: "Estatutua hilda dago". ETAK Blanco PPko zinego-zia bahitu eta akatu egiten du. "A por ellos!" erasoa. Zipaioek manifa bat tirokatzen dute, eta Guardia Zibilak Bustinza eta Gaztelumendi erahiltzen ditu Bilbon.

1998 Ekimena

HBk Irlandako Foroa martxan jartzen du. Zipaioek Ina Zeberio akatzen dute. Lizarra-Garazi hitzarmenak, gatatzaren parametroak bere tokian kokatzen ditu. ETAren ekimena martxan jartzen da Su Etenaren es-keintza baten bidez. Bai Euskarari kanpaina arrakas-tatsua. Presoen aldeko presioa areagotzen da. Gar-zonek irekitzen du 18/98 Sumarioa, independentis-moaren aurkakoa, Xaki, KAS, eta beste operazioekin. EGIN eta EGIN Irratia ixten dituzte. EH sortzen da. Josu eta Kris torturatuak eta kartzelaratuak.

1999 Udalbiltza

Udalbiltza sortzen da Iruñean. GARA, kalean. Parisek dio dispersioa mantenduko duela. Joselu Geresta, HBren egoitzen miaketa Donostian. Esteban Nieto. Aberri Eguna ekintza bateratuekin. Baskongadetan, Gobernu Akordioa EH-EAJ-EA, marko berri baterantz. Mahai Nazionala aske. Presoen trasladoak; kolektiboak maniobra hutsa dela salatzen du. EKIN antolakunde independentistaren sorrera. Presoen gose greba muga gabea hasten da. ETAren ekimenaren amaiera irekitako Prozesuaren usteltzeak - EAJk eraginda - bultzatuta.


2000 Garzón

Garzonen erasoa darrai: EKIN, Zumalabe, Aek,... Antton Oilokiegi Altzatarra, kartzelan. Hautetsiak lanean blokeoa gainditzeko. "Bai Euskal Herriari". Lau ETAKide hilik Boluetan. Senta Gabelara martxa Departamentuaren alde. Haika sortzen da Kanbon. Batasuna prozesua abian. ETAren ofentsiba. "Huma-nidadeen" dekretoa. Euskararen aurka Nafarroan.

2001 Aurrera boliel

Hasi berri duen urte honetan, hasieran aipatu bezala, Koldo eta Fernando hogei urte betetzen dituzte "barruan". Urte honetan bi gertaera gustatuko litzaizkiguke ezagutzea: bi lagun hauen kaleratzea (eta beste guztiena, nola ez), eta martxan dagoen Eraikuntza Prozesuaren sakontzea. Gutako bakoitzari dagokionean, buru belarri jarraituko dugu lanean, borrokan. Emaitzak etorriko zaizkigu. Jo eta ke, irabazi arte!

EUSKAL HERRIA



SEIRAK BAT

Altzako herria, agur:

Fernando eta Koldo Euskal Herritik eraman eta espetxeratu zituztenetik hogeitun urte joanak dira jada. Gure historiaren luze-zabalean, argiune eta itzalak utzi dituzten bi hamarkada pasa dira eta itzuleraren ordua ez zaie oraino iritsi, herriaren alde borrokatzeagatik errepresaliatuen askatasunak baduelako ukan prezio politikoa.

Bide luze honetan, guk bezala, hamaika kidek ezagutu dituzte Fernando eta Koldo. Beteranoen artean beteranoenetakoak zirelako edo, haiengan bilatzen genuen Kolektiboaren barne-grina espetxean sartu eta berehala, eta egia esan, zer aurkitu bazegoen eta dago bi lagun hauen ispiluan.

Duin bizitzea da preso guztion eguneroko erronka, eta zeregin honetan ikaskizun apartak eman dituzte batak zein besteak. Sufrimenduaren eta doilorkeriaren estoldetan barna derrigorrez ibilita, burua tente eta eskua irekita jarraitzea ez da hutsaren hurrena, eta emateko orduan, fin baino finago jardun izan dute gure lagunek, goia jotzeraino behin baino gehiagotan.

Oso ezberdinak izanik, enbor bereko adarrak dira, itzala beti ematen duen zuhaitzaren senekoak. Gehien maite dutenaren pare gorde dituzte euren printzipioak kostatuta, baita olatuen enbata ia ia jasanezina izan denetan ere. Eta halere ez ditu inork euren balentriak entzun, ez behintzat haiek kontatuta.

Hogeitun urte pasata, zori oneko altzatarrek zaretela esatera gatzakizue gaurkoan, gu ere pribilegiatuak garen bezala, gizatasunak eta kuraiak oso gutxitan baitute Koldo eta Fernandoren goxotasuna. Euren epelean, inoiz, izanen da aske gure aberria, baldin eta borrokaren gazi-gozoa bizkarrean hartzen badugu.

Hogeitabat urte pasa ez daitezten, LEHENBAITLEHEN ekarri Altzara!

Besterik gabe, besarkada handi bat eta ekin borrokari, merezi du eta.

Joxean Agirre, Euskal Preso Politikoa





**Euskal Herria
dugu irabazteko.
Jo ETA ke
askatasunaren
gailurra
zapaldu arte!**